

## Garailea

**Peter B. Kyne**

*Itzultzailea: Ezezaguna*

Apailatzailea: Inazio Mujika Iraola

2005

EIZIE

Ale berezi bezain interesgarria oraingoan Inazio Mujika Iraolak *Itzultzaile Aintzindariak* bilduman eskaintzen diguna. Peter B. Kyne best-seller idazlea izan zen XX. mendearen hasieran. Haren obra asko itzuli ziren gaztelaniara (western-eleberriak haietako asko) eta eskuartean dugun bertsio hau, Mujikak azaltzen digunez, ez dakigu gaztelaniatik ala zuzenean ingelesetik egina den. Emaizta ikusita ez zaigu, ordea, hainbeste axola. Egokitzapena dugu itzulpena baino areago eta oso euskara errazean emana (Beterri aldeko gipuzkeraz). Garai hartako hitz garbizaleren bat edo beste kenduta (*edestu, txinela...*) hasi eta buka irakurtzen diren horietako istorioa. XX. mende hasieran EEBBetan boladan zeuden indibidualismo-baloreak ageri dira kontakizunean. Horixe dute gainera ardatz: gazte bati enpresaburu batek leialtasun-proba gogor bat pasatuaraziko dio lanpostu on bat eman aurretik. Horixe baita kontua, ingelesezko izenburuak berak azpian jasota daukanez: "lehena izatera iristen erakusten duen istorioa".

Oso testu egokia da (bizia, arina, emozioz betea) euskal irakurgai gisa normahiri gomendatzeko. Euskaltegietan dabilen jendearekin oroitzen naiz, eleberri labur hau bezalakoak baitira behar dituztenak. Eta, liburuari erantsita datorkigun hiztegi tipiaren bitartez, neologismoak ulertu ez ezik, ezagutu ere egingo lituzkete irakurleek. Garai batean –ez hain aspaldi– erabilitako neologismoak ere gure ondarearen zati baitira.

Bere garaian ere antzeko asmoak bultzatuta itzuliko zuen idazle gazte ezezagun hark abentura labur eta bizi hau euskarara, irakurleei euskaraz irakurriz gozatzeko aukera ematea, alegia, ez baita gutxi! Egun protagonismoa berreskuratua baino gehiago dugun itzultzaileok badugu zer ikas eta zer gogoan har anonimotik hain itzulpen duin eta txukuna eskaini zigun itzultzaile ezezagun harengandik. Bat egingo dugu guk ere, beraz, Inazio Mujikarekin euskal itzultzaile ezezagunari omen egiteko.

Mikel Garmendia